

2



2

3

Jaialdia FANTASIAZKO ETA
BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEA

Jaialdia FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEA



Lone Fleming & Marian Salgado

Urriaren 27tik azaroaren 3ra ospatu zen Aste entzutetsuaren 34. edizioa, eta erreferentziatzko leihoa izaten jarraitu zuen azkeneko urteetan Euskadin eta Euskaditik moldeak hautsi eta ikusle zein sortzaileentzako harrotasunezko bideak ireki dituen genero honetarako. Euskal mitologian inspiratuta, **Bruixes-Sorginak** izan zen aurtengo *leitmotiva*, lehen aldiz beste jaialdi batek ere izan duen gaia, Molins de Reiko **TerrorMolins** jaialdiak, hain zuzen ere. Kultura-truke hori hainbat emakume irudigileren gai beraren inguruko erakusketa batean eta baterako liburu ofizial batean ere islatu zen.

Baterako inbokazioak berriro lortu zuen audientziaren erantzun ona Donostian; 10.000 ikus-entzule joan zen egin ziren zinema-emanaldietara, eta beste ia 10.000 lagunek bisitatu zituzten erakusketak eta antolatutako jardueretan parte hartu.



Halloween

URRIA
27 OCTUBRE

XXXIV

AZAROA
3 NOVIEMBRE



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN 2023

FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO
ZINEMAREN ASTEA

SEMANA DE CINE FANTÁSTICO
Y DE TERROR

DISEÑADA / DISEÑO: ALIVE VFX & DESIGN · ARGENTINA / FOTOGRAFIA: MARTA FRESNELLO

ANTOLATZALEA / ORGANIZA

BARESEAK / PATROCINAN

WWW.SANSEBASTIANHORRORFESTIVAL.EUS





Halloween



Sorginak erakusketa, Sara Bea



Sorgin seinalea erakusketa

Denboraldi honetan, **La Ermita** koprodukzioa (euskal-kataluniarra, hain justu) izan zen fantasiako filmen arteko proposamen nagusia, sail ofizialeko estreinaldien artean. **Carlota Peredak** zuzendutako filma da, oso-osorik Euskadin filmatu dena eta, hein batean, Euskadiko kondairetan ere inspiratuta dagoena. Bestalde, lehen aldiz antolatu zen Euskal Film Laburren maratokia, generoak Euskadin duen osasun onaren ustea indartu zuena. Halaber, euskarazko azpтитulu gehiago egon zen saio guztietan, azpтитulu elebidunaren aldeko apustu batekin (euskarari bisualki lehentasuna emanez).

Erakusketei dagokienez, **Iconos del Cine Fantástico Japonés** izan zen anbiziotsuena, Euskadiren eta Japoniaren arteko kultura-harremanak gogora ekarri dituen urtearen barruan. **Akelarre ilustrado** erakusketa ere egon zen ikusgai, bai eta **Sorgin seinalea** euskal komiki mitikoari eskainitakoa ere.

Publiko berriak sortzeko lanarekin ere jarraitu da, haurrentzako eta familientzako jarduerekin, eta aurten lehen aldiz, GauBeltza-Gaztea saioarekin eta *anime* estiloari eskainitako beste batekin.



Sorgin-Con



Sorgin-Con